

Martutene

Gaztegunek abenduan atek zabaldu zituenetik oso harrera ona izan du auzoan eta etengabe ari da gazteei zuzenduriko ekintzak antolatzen. Gazteek orohar oso ondo hartu dute gune berri hau.

Amaia Etxeberria [943 210937]

Zentro honek hiru hilabete daramatza zabalik, baina orain arte gazteen erantzuna ona izan dela adierazi digu Yoli Martin gaztelekuko arduradunak. *"Egunero 20-25 bat gazte etortzen dira. Auzotarrek gustukoa dute gaztelekua. Izan ere, Martutenek bazuen horrelako gune baten beharra"*.

Ekintza ugari

Gaztegunea eta bertan egiten diren ekintzak hiru gune ezberdinetan banatzen dira. Alde batetik ikastaroak eskaintzen dira. Gaur egun otsailean hasi ziren hiru ikastaro daude martxan: gitarra, antzerkia eta txalaparta.

Beste aldetik topagunea izeneko saila dago. Bertan, tailerrak eta irteerak antolatzen dira, gazteek elkarrekin zenbait ekintza egin ditzaten. Tailerretan, esaterako, komikia, disk-jokey lantegiak, egurrarekin egindako eskulanak eta abar egiten dira. Ikastaro guztiak doan jaso daitezke gainera. Irteerak ere egiten dira: Kursaalera, Aquariuma bisi-

tatzera, eskalada egitera...

Azkenik gazteei interesatzen zaizkien zenbait gairi buruzko informazio praktikoa aurki daiteke informazio gunean: lan eskaintzari buruzkoa, ikastaro eta lehiketaren berri eta abar.

Kultur etxearen papera

Martutenek ez du kultur etxerik eta Gaztelekua hutsune hori betetzen saiatuko da. Yoli Martinen esanetan, *"gaztelekuak, kultur etxearen papera betetzen du auzoan. Piskanaka, geroz eta baliabide gehiago eskaini nahi ditugu. Laster, adibidez ordenagailu bat jarri nahi dugu,*

internet eta guzti."

Gaztelekuak bestalde badu hemeroteca bat, tailerrak egiteko bereziki prestatuturiko gela, areto txiki bat eta baita gazteak elkarrekin egoteko gunea: mahai-jokoekin eta abarrekin.

Baratzagintza lantegia

Bestalde, martxoaren 14an, baratzagintzari buruzko ikastaroa hasiko da. Izena emateko epea, martxoaren 11ra arte dago zabalik eta 6.500 pezeta ordaindu behar da. Saio teoriko-praktikoak izango dira eta oinarrizko kontzeptu eta tresnak erabiliko dira.

Añorga

Ipar Euskal Herriko kantu goxoak kultur etxean

Lierni Otamendi [943 363436]

Añorga Kultur eta Kirol Elkartek antolatuta, martxoaren 10ean Antxon Ayestaran kultur etxean emanaldi bikaina izango dugu iluntzeko 20.00etan. Bertan Ipar Euskal Herriko kantuez gozatzeko aukera izango dugu, izan ere, Aire ahizpak eta Xalbador eta Ihdoi izango ditugu gure artean.

Xalbador bertsolariaren seme eta bilobak, auzoko elkarteak Jose Mari Aranalderi eskainitako omenaldian aritu ziren iaz Añorgan, familia honekin harreman handia baitu Aranaldek. Orduan, beren dohaien erakustaldi txiki bat egin zuten Miren, Amaia eta Paskaliak, eta baita Danielek berak ere. Oraingoan Daniel, Ihdoi-rekin batera arituko da eta hiru ahizpek beren aldetik kantatuko dute.

Kantaldiaren ondoren, afaria izango da Jolas Etxean.

Mendizaleen irteera

Mendizaleek bi irteera egingo dituzte hilaren 12an. Lehen taldeak Laudiotik Bilborako bidea egingo du, Ganekorta eta Pagasarritik pasatuz. Hurrek, berriz, Ulian antolatutako ibilaldi neurtuan parte hartuko dute.



Otsailetik hiru ikastaro martxan daude Gaztelekuan. Horietao bat antzerkiari buruzkoa da.